

NAFARROAKO MENDIALDEKO IKA
EUSKALTEGIEN EUSKARA ALDIZKARIA

ETXETIK PLAZARA

AGUR eta MILA ESKER!!



SARIA:
BIDAZI elkarteko
bertako produktu
ekologikoen
saskia

2022ko IRAILA

179. ALEA

ADIORIK EZ

Lehenengo eta behin, esku artean duzun Etxetik Plazara aldizkari hau (179) azkena izanen dela erran nahi dizugu. 1994an, Bortziriak, Malerreka eta Leitzaldeko IKA euskaltegikook martxan jarri genuen proiektu honi akabera eman behar diogu. Momentuz, ziklo bati amaiera eman nahi diogu. Azken ale honetan, 28 urteko ibilbidea errepasatu nahi dugu eta urte hauetan gurekin bat egin duzuen guzoi eskerrak eman nahi dizkizuegu.

Etxetik Plazara aldizkaria martxan jarri eta segituan, Etxetik Plazara irratsaioa ekimena ere abiatu genuen, eta, orain dela hiru ikasturte, Xorroxin irratian burutzen genuen saioari ere bukaera eman genion. Azkeneko hiru urte hauetan, Etxetik Plazara podcastak grabatzeko erronkari ekin genion eta, oraingoan ere, horri dagokion zikloa bukatutzat eman behar dugu.

Gure helburu edo ideia nagusia urte hauetan izan da etxetik mugitu gabe tresna bat sortzea: alde batetik, euskaltegira etortzen ez den jende euskaldunarendako, eta, bertzetik, euskaltegian ikasten ari diren ikasleendako. Gure aldizkariaren helburua, gure eskualdeetako euskalkien eta euskara batuaren arteko zubi-lana eginez, bai irakurmena, bai idazmena, bai gramatika, ahalik eta arin eta atseginen lantzen laguntzea izan da.

Ia 30 urteko historia honetan, 179 ale kaleratu ditugu eta, 125. alea burutu genuelarik, Etxetik Plazara liburu bilduma argitaratu genuen. Bilduma hori 1994an kaleratu genuen eta bertan urte hori bitarteko harribitxi gehienak bildu genituen. Geroztik, gure sormenak bertze harribitxi aunitz utzi ditu. Ale guztiak karpitetan altxatuta ditugu eta 140. aletik gaur egunera arte kaleratu ditugunak <https://bortziriak.ikaeuskaltegiak.eus/euskara/etxetik-plazara> helbidean eskuragarri dituzu.

Azken hamar urte hauetan, 4.500 ale banatu ditugu Ttipi-ttapa aldizkariarekin batera (Baztan, Bortziriak eta Malerrekan), baina hasmentako urteetan ia 10.000ko kopurura ailegatu ginen, Iparraldeko Euskara Mankomunitateetako eremuetan banatzen baitzen: Leitzaldea, Goizueta, Imotz Basaburua, Lekunberri, Ultzama Anue... Ibilbide luze honetan proiektuan lan-talde aunitz aritu dira, bakoitzak bere ilusioa eta ekarpen interesgarri eta pertsonala eginez. Aldizkariak kolore desberdinak izan ditu: zuria, izokinaren kolorea, laranja, berdea eta orain duena, horia, alegia. Hasmentako urteetan, ikasturteko bederatzi ale kaleratzen genituen, baina, aurrekontuak zirela eta, azken txanpa honetan urteko bortz ale kaleratu ditugu. Diseinuari dagokionez, aipatu behar dugu profesional onak izan ditugula, berezko estiloa eman diotenak: Joseba Larratxe, Raul Garzia, Mathilde Brugière-Garde...

Etxetik Plazarak une gozoak eta ez hain gozoak bizi izan ditu, baina beti ateak joka, bultzatzaile eta diru-laguntzak lortu ditugu: Europakoak, Udalbide, Euskadiko kutxa, CAN, Nafarroako Gobernuak emandakoak... Baina ibilbide luze honetan sostengurik handiena Baztango Udalak zein Bortzirietako Euskara Mankomunitateak eta Malerreka Mankomunitateak eman digute. Garai zailetan, murrizketak etorri direlarik, haiei esker Etxetik Plazararen katea ez da hautsi.

Horrenbestez, aleka-aleka, 2022ko udazkenean azken fruitua kaleratu dugu, baina Etxetik Plazararen haziak etorkizunean bertze fruitu batzuk emanen dituztelakoan gaude. Gure erronka euskara etxetik plazara eramaten jarraitzea baita.



BITXILOREAK

HIZKUNTZA BAT, HAMAIKA BIDE

Euskara ikasi, hobetu edo landu nahi duenak erraztasun handiak ditu gaur egun. Egia erran, baliabide faltarik ez dago; hamaika bide harrapatuko ditu ikasteko gogoia duen horrek. Beraz, azken Etxetik Plazara honetako bitxiloreen atalerat, gida ttiki bat ekarri dugu gure hizkuntza ikasi edo hobetu nahi duenarendako. Eskuragarri izaten ahal dituen baliabideen berri ematea da asmoa, beraz, has gaitezen zerrendarekin:



Euskaltegiak: hemendik hasiko gara, noski. Eskualdeko euskaltegiek paper garrantzitsua betetzen dute euskararen irakaskuntzan eta hobekuntzan. Izan zerotik hasteko, izan modu lasai eta hurbilean ikasteko, izan tituluak lortzeko, hortxe ditugu euskaltegiak gure eskualde osoan. Gaur egun, eskoletarat modu presentzialean joaten ahal ez direnendako ere badago online ikasteko aukera.



Dirulaguntzak: doakotasunaren bidetik, euskaltegiko eta euskara-ikastaroetako matrikulak ordaintzeko dirulaguntzak dituzte eskualdeetako udal edo mankomunitate gehienek. Ez izan dudarik eta probestu aukera.



Barnetegiak: ikasturteko errutinarekin pixka bat hausteko eta udan euskarari sakonki murgiltzeko, hortxe ditugu barnetegiak. Egun emankorrak izanen dira bertan bizitakoak, zalantza izpirik gabe, eta euskarari bulkada ederra emateko balioko du egonaldiak.



Solaslaguna: euskaraz solastatzea kostatzen zaienendako edota mintzamena hobetu nahi dutenendako programa aproposa. Dinamika lagunkoia du ardatz egitasmo honek: talde ttikietan elkartu, lasai ederrean solastatu eta mingaina askatu.



Euskaraldia: aurten ere Euskaraldia izanen dugu Euskal Herriko txoko guzietan, baita geurean ere. Azaroaren 18tik abenduaren 2ra egingen da, eta euskaraz solastatzeko (edo, belarriprest izanez gero, euskara hartzeko) konpromisoa hartzea da helburua.



Hedabideak: *Ttiki Ttapa* aldizkaria, *Xorroxin* irratia, *erran.eus* webgunea, *Berria* egunkaria, *Argia* aldizkaria, *Aizu* aldizkaria, *ETB*, *Xaloea* telebista, euskarazko podcastak... Horiek erabilita ere aunitz ikas dezakegu eta, bide batez, ingurua ongi ezagutu.

BITXILOREAK



Liburutegia eta irakurle-taldea: liburuak zoragarriak dira edozein hizkuntzatan; euskaraz ere irakur dezagun. Irakurketak izugarri aberastuko du geure hizkuntza, bai eta geure burmuina ere! Probestu liburutegien bueltan antolatzen diren irakurle-taldeak: bakarrik irakurtzea ongi dago, baina bertzeekin konpartitzea are hobekiago.



Bertso-eskolak: eta zergatik ez? Bertso eskolak ez dira bakarrik euskara ongi-ongi menperatzen dutenendako, hizkuntza hobetu eta landu nahi dutenendako ere bai. Eskualdean baditugu helduentzako bertso eskolak, horretarako ere ez gara sobera urruti joan beharko!



Mugikorra eta sare sozialak: horiek ere euskaraz paratzen ahal dira. Gehienek horretarako aukera dute; hortaz, eman pausoa eta konfiguratu horiek euskaraz.



Joko interaktiboak: Egunean behin eta Berbaxerka mugikorrerako aplikazioak, Jakinal! Euskal tribiala, Hitziki webgunea... Gero eta gehiago dira sarean eskuragarri dauden joko interaktiboak.



Euskarazko azpтитuluak: jatorrizko bertsioko filmak ere euskaraz gozatzen ahal ditugu azpтитuluaren bidez. Horretarako, azpтитuluak.eus webgunea baliatzen ahal izanen dugu. Kontuan izan Netflix bezalako bideo-plataformak ere hasi direla euskarazko azpтитuluak egiten.



Bertzelako baliabide batzuk: denda eta liburutegietan harrapatu ahal izanen dituzuen testu-liburuez gain, Interneten modu digitalean material franko dago euskara lantzeko: elaide.eus, ikasbil.eus, ikasgela.santurtzieus.com, aditzak.com, ikasten.net, mintzanet.net...



Etiket Plazara: Eta, noski, ez ahantzi Etxetik Plazarako zenbait ale eta podcast-saioak ere eskuragarri dituzuela interneten:
<https://bortziriak.ikaeuskaltegiak.eus/euskara/etxetik-plazara>
www.etxetikplazara.ivoox.com

Beraz, hautatu zure bidea, denak dira egokiak eta lagungarriak. Azken finean, kontua zera da: jantzi eta partekatu euskara.




JOLAS-NAHAS

EUSKARAREN GURUTZEGRAMA

Gurutzegrama honen bidez, bitxiloreen testuan aipatutako baliabideen errepasoa egingen dugu, ea informazio guzia garbi gelditu zaizun!

ERNE, SARIRAKO!



Goitik beheiti:

1. Euskaraz konfiguratzen ahal den hari gabeko telefonoa.
2. Bertsolaritzaren ezagutzan sakondu eta hizkuntzaren alde ludikoa lantzeko gunea.
4. Bideoetan ikusten diren irudiekin batera doan audioaren transkripzioa edo itzulpena.
7. Ikasleei euskara-eskolak ez ezik, egoitza eta mantenua ere eskaintzen dien ikastegia.
9. Euskaraz solastatzeko ohitura duten lagunak ohiturarik ez dutenekin elkartzen dituen egitasmoa.

Ezkerretik eskuinerat:

3. Euskara ikasteko ikastegi berezitua, errate baterako, IKA sarekoa.
5. Tribial estiloko euskarazko galdera-erantzunen jokoa, egunean partida bakarra jokatzeko aukera ematen duena.
6. Bidaso ibaiaren iturburua izateaz gain, eskualdeko irratia ere bada.
8. Euskara konprenitzen duten hiztunen arteko ahozko hizkuntza-ohiturak aldatzeko ariketa sozial masiboa, gizartearen gunea guztietara zabaldua eta denborari dagokionez mugatua.
10. Bertan edo maileguan harturik irakurtzeko, liburuak sailkatuta gordetzen dituen eraikina.
11. Begien aitzinean duzun aldizkariaren izena.
12. Euskara debalde ikasi ahal izateko instituzioek ematen dutena.

ERANTZUNAK



178. aleko sarirako ariketaren erantzunak – BITXILOREAK (5. or.):
1- f; 2- e; 3- h; 4- k; 5- i; 6- l; 7- d; 8- c; 9- g; 10- a; 11- b; 12- j

ETXETIK PLAZARA lehiaketa

Gure lehiaketan parte hartzeko, ariketa baten erantzunak bidali beharko dituzu. Ale honetan, 6. orrialdeko erantzunak dira beheko aldera pasatu beharrekoak. Marratik moztu eta postaz bidali azkeneko orrialdeko helbideren batera. Hurrengo alean ariketa horren erantzuna eta sariaren irabazlearen izena agertuko dira.

179. aleko SARIA:

BIDAZI elkarteko
bertako produktu
ekologikoen sorta

178. aleko irabazlea:
Maitane Ariztegi
Doneztebekoa

ETXETIK PLAZARA
liburua, **DEBALDE!!**
Eska ezazu,
Bortziriak edo Malerrekako
IKA euskaltegietan



<http://etxetikplazara.ivoox.com>

OHARRA: erantzunak urriaren 6a baino lehen bidal itzazu.



SARIRAKO ARIKETA

JOLAS-NAHAS (6. or.):

- | | |
|-----------|------------|
| 1 - _____ | 7 - _____ |
| 2 - _____ | 8 - _____ |
| 3 - _____ | 9 - _____ |
| 4 - _____ | 10 - _____ |
| 5 - _____ | 11 - _____ |
| 6 - _____ | 12 - _____ |

EP 179 (2022/09)



ika

euskara errazago egiten



EUSKARAREN KILIKA!!

aurten ere



euskara

ikaSI!



Zatoz EUSKARAREN kilikara!

Zeure herrian, urritik ekainera, astean 4 edo 6 ordu
MAILA GUZTIAK A1etik C1-EGARA, baita ON LINE ere

%100 diruz lagunduta!!

MATRIKULA ZAITEZ irailaren 30a baino lehen!!

IKAbortziriak, 948 637 796, bortziriak@ikaeuskaltegiak.eus

IKAmalerreka, 948 451 555, malerreka@ikaeuskaltegiak.eus



ZOZKETARAKO DATUAK

Izen-abizenak:.....

Helbidea:..... Herria:.....

Telefona:..... Adina:.....

HORRA GURE HELBIDEAK

Bortzirietako IKA Euskaltegia.
Arretxea 22, 31770 Lesaka.
bortziriak@ikaeuskaltegiak.eus

Malerrekako IKA Euskaltegia.
Rosa seminario 6, behe, 31740 Doneztebe.
malerreka@ikaeuskaltegiak.eus

Aldizkari honen egileak:

**Bortziriak eta
Malerrekako IKA
Euskaltegiak**

Marrazkiak:

Joseba Larratxe

Diseinua eta maketazioa:

**Raul Garcia Etxeberria
Mathilde Brugiere-Garde**

Laguntzaileak:

**Nafarroako Mendialdeko
EUSKARA
MANKOMUNITATEAK**

